

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Topaguneak hitzarmen bat sinatu dute Nafarroan Euskaraldia: 11 egun euskaraz programa garatzeko

Ekimenak euskararen erabilera sustatu nahi du gizartean eta Iruñean aurkeztuko da datorren martxoaren 14an, ekitaldi publiko batean

Ostirala, 2018.eko martxoak 9

Hitzarmena gaur sinatu dute Ana Olo Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak eta Topaguneko lehendakari Oskar Zapatak. Nafarroako Gobernuak 100.000 euroko diru-laguntza emango dio “Euskara 365” programari, halako moduz non *Euskaraldia* ekimena Nafarroan ere gauzatzeko modua egongo den. Aipatzekoa da Nafarroako 2018ko Aurrekontu Orokorretan ekimen honetarako partida bat jaso zela.



Mikel Arregi, Ana Olo eta Oskar Zapata, Euskaraldia kanpainaren kartelarekin

Horrela, akordio hau sinatzean, Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bidez, ekimenaren koordinazio orokorra ari da laguntzen honako arlo hauetan: diseinua, dinamizazioa, formazioa, komunikazioa eta baliabideen egokitzapena eta kudeaketa, gerora tokian tokiko ezarpena ahalbidetuko dutenak.

Euskaraldia Topagunearen urte honetarako egitasmo nagusietako bat da. Euskararen erabilera aktibatzeke urte bateko programazioa da hitzunei zein, nahiz eta ez hitz egin, ulertzen dutenei zuzendurik eta ekimenari atxikitzen diren herri guztietan egingen da. Dinamika 11 egun euskaraz bizitzeko gonbitearekin borobilduko da.

Horrelako ekimenen bidez, Nafarroako Gobernuak 2017ko urtarrilaren 25ean onartu zuen *Euskararen I. Plan Estrategikoan* ezartzen diren helburuak bete nahi ditu. Hain zuzen ere, lehenengo ardatzean honako helburu hau aipatzen da: euskararen erabilera igotzea, hiztunek



gizarte arlo guztietan erabil dezatela erraztuz eta euskararen erabilera errazagoa eginez.

Ana Olo eta Oskar Zapata, sinaduraren momentuan.

Aurkezpen Kondestable Jauregian

Euskaraldia: 11 egun euskaraz ekimenaren aurkezpena Nafarroan datorren martxoaren 14an, asteazkenarekin, arratsaldeko 17:30ean izanen da Iruñeko Kondestable Jauregian. Sarrera libre izanen da, aforo bete artio. Ekitaldian honako hauek parte hartuko dute: Ana Olo kontseilaria, Mikel Arregi Euskarabideko zuzendari kudeatzailea, Oskar Zapata Nafarroako Topaguneko arduraduna eta Elena Laka Euskaltzaleen Topaguneako presidentea.

Reyes Illintxeta kazetaria arituko da saioa aurkezten, eta honako hauek ere hizlari ariko dira: Arrate Illaro Euskaltzaleen Topagunea, Kike Amonarriz soziolinguista eta Eneko Gorri BAM dinamika barnetik bizi duen euskaltzalea.